

Denboraren makina
La Argentina
dantzaria

▣ *Ezpalak*
▣ *Argitalpenak*

▣ *Denbora-pasak*
▣ *Makina bat kontu*

Thesi
Atxulondo
burdinola (Zizurkil)

ARGIA

erdiko kaiera

kultura eta aisia

Patxi Huarte, *Zaldi Eroa* Umore indioaren buruzagia

Euskal indioek seriotasunez begiratu izan diote munduari beren erreserba txikitik. Azkenaldi honetan ordea, buruzagi berri batek giroa aztoratu du. Luma burutik kendu eta paper gainean jartzea otu zaio, komikiak egiteko. Eta euskal indioek barre egiten ikasi dute komiki horiei esker. Erruduna –hala deitzea baldin badago behintzat– Zaldi Eroa izenez ezagutzen dute. Izen horren atzean ordea, Patxi Huarte ezkututzen da, ironia, surrealismoa eta xalotasuna uztartuz bere berezkoa duen estiloa garatu duen komikigilea.

Gorka Bereziartua
Argazkiak: Josu Santesteban





«Ez, nik ez nuke ergatiboa kenduko»

Zure lehen marrazkiak *Korrokan* aldizkarian kaleratu ziren. Zer giro zegoen Iruñean urte haietan? Zerk bultzatu zintuen marraztera? Paraiso irrastian nengoen, irrati libre bat, Iruñean egon zen lehendabizikoa, eta han aditu nuen marrazkilari bat behar zutela *Korrokan*. Deitu eta hasi egin nintzen. Euskal kulturaz zer-bait egin nahi nuen, ze nik ikastolan ikasi nuen, baina atera bezain pronto euskara galdu nuen. Ez nuen hitz egiten, ez nengoen inolako giro euskaldunetan sartua... Halako kontzientzia bat piztu zitzaidan, eta *Korrokan* hasi nintzen.

Geroztik hainbat hedabidetan aritu zara: *Nafarkaria*, *Aizu!*, *TMEO*... Orain *Berria* egunkarian zabilta egunero. Hasieran afizio zena ofizio bihurtu zaizu?

Bai. Euskalerria Irrastian nenbilenean AEKn lanpostu bat atera zen marrazkilari batentzat eta han hasi nintzen marrazkilari bezala kobratzen.

Ofizio bitxia da, zer moduz bizitzen da komikigile bat?

Bueno, biziraun egiten da. Ez duzu soldata arrunta inoiz egiten. Orain *mileuristak* maila baxuena direla esaten dutenean... Nik nahiko nuke *mileurista* izatea!

Zurea bezalako lan sortzaileetan ez du bertigorik ematen hurrengo egunean argitaratu behar den komikirako ideiarik gabe egoteak?

Ongi daramat orain arte. Hala ere, azkenaldi honetan ez dut hain garbi. Behin gidoi-

lari baten liburuan irakurri nuen ez zaiola beldurra izan behar, berez aterako dela zer edo zer zure lanean sinesten baduzu. Eta orain arte horrela egin dut. Azken aldian nahiko gidoi eskasak atera zaizkit ordea, krisian sartu naiz.

Euskal Herriko egunerokotasuna, politika alo-rean behintzat, ez da nahi bezain baikorra. Nola lortzen da umorezko begiratua ematea? Ez dakit. Oraingo egoeran txisteak egiten hasten bagara... Nik uste antzematen dela niretzat egoera ez dela graziosoa. Azken bi urte hauetan bagenekien gauzak bideratuta zeudela modu batean edo bestean eta horrek lasaitzen zaitu gauzak beste modu batean hartzeko, modu alaiagoan, eta kritikatzeko. Baina orain gauzak bere gordinean agertzen direnean, jendea atxilotzen dutenean, De Juana hiltzorian dagoenean, jendeak hiltzen duenean... zailagoa da.

Politikaz ari gara. Politikariak pertsonaia bihurtu izan dituzu komikietan. Zein izan da komikieratzeko zailena eta zein errazena?

Sanz, esate baterako, oso zaila egiten zait eta ez dut ateratzen. Bere gauzetaz barre egin dut baina bera ez dut atera orain arte. Ni oso karikatragile txarra naiz, asko kostatzen zait jendearen aurpegia islatzea. Aznar berriz oso erraz ateratzen zitzaidan. Hauteskundeak galdu zituenean umorista guztiek esan zuten "ze zaila egiten zaigun orain eguneroko komikia egitea". Bera giñoletako pertsonaia da, oraindik ere. Fisiko horrekin eta esaten dituen gauzekin...

Tabuak ukitu eta puskatzen dituzu sarri zure komikietan. *The Organization*eko kideak marraztean adibidez, ETAko kideak zure komikietako pertsonaia bihurtu dituzu. Norbaitek gaizki hartu dizu inoiz?

Bai. Behin, errepresioa oso bortitza zenean zera esan zidaten: "Etxeko taldea galtzen ari da eta zu hortaz barre egiten". Gaztelaniaz esan zidaten. Normala da eta bueno, beste

Tamainaren garrantzia

Berrian gutxi gora behera hogeita bost zentimetro dituzu...
...fiskokoki gehiago! (kar, kar, kar)

Zure komikiak duen tartean ari nintzen... Nola lortzen da hain distantzia laburrean kolpea jotzea: barrea eragin, pentsarazi...

Destilazio prozesua da, whiskya egitea bezala. Zehazki ez dakit whiskya nola egiten den, baina vodka kasuan uste dut patata erabiltzen dela. Bada hori, 50 kilo patata hartu behar dituzu eta destilatu, eta hortik lau tanta atera. Hor dago lan guztia. Niri zinta marraztea ordu erdia kostatzen zait, baina destilatzeak egun osoa ematen dit. Periodiko guztiak irakurtzen ditut eta buruari eragiten diot eta alde desberdinetatik begiratzen ditut gaiak. Gero laburbilduz esan nahi dudana nola azaldu pentsatzen dut. Hor dago lana. Gainontzeko gauza guztietan ere berdina da: poesian, ipuingintzan, nobelagintzan, pinturan edo zinemari. Kontua laburtzea da, gauzak kentzea.

batzuk igual ez didate esan, baina aurpegiak jartzen dizkirate... Baina bueno, gutxi.

Jendeak ondo hartzen du.

Bai, preso ohiak ere egon dira, oso ondo ari naizela esan didatenak eta etakideak izandakoak dira noski.

Zaldi Eroa entomologo

"Gauza deigarriak dira *bitxuak*, eta inurriek beti deitu dute nire arreta. Jostailu israeldar bat erosi nuen, etxean inurriak hezteko, eta erregina bat hartu eta batzuk hezi nituen".

1994ra egingo dugu salto. Urte hartan Rikardo Arregi Saria jaso zenuen. Geroztik zure jarraitzaileek berriro proposatu izan dute zuri Rikardo Arregi Saria ematea, baita ARGIA Saria ere eta... Euskaltzaindirako ere proposatu zaitu norbaitek! Ezin esan jarraitzaile faltan zabilzanik.

Egia da bai, eta gauza pozgarria da. Ingelesez esaten den bezala, *feedback* handia izan dut lehendabiziko momentutik. Ni beldurrez hasi nintzen eta *Berriakoei* esan nien ez nuela nire burua ikusten eguneroko lan horretan. Eta beraiek nahi nuen epea hartzeko esan zidaten, "egon zaitetz hilabete batez edo bi hilabetez eta gero ikusi". Eta hasi bezain laster beldurra galtzen joan nintzen, gero eta gauza pertsonalagoak egiten. Zenbat eta lan pertsonalagoak egin orduan eta harrera hobea nuen... Alde horretatik oso pozik nago.

Lan pertsonalak aipatu dituzu. Askotan zure burua sartzen duzu komikietan. Ez dizu beldurrik ematen jendeak zu eta komikiko pertsonaia nahasteak?

Ez dut inongo beldurrik. Orain, gertatzen da jendeak esaten duela ego handia dudala, eta bueno, horrek mintzen nau, baina ni nire esperientziatik abiatzen naiz besterik gabe, eta horrela aldarrikatzen dut eta aitortzen

Egunkaririk liburura

2005ean *De Rerum Natura* liburua kaleratu zenuen, zure ordua arteko zinta onenen bilduma. Hura argitaratu ondoren elkarriketa batean esan zenuen beste libururen bat, agian nobela grafiko bat, egiteko gogoia zenuela. Zertan da hori? Ideiak badituz. Gaur egungo neokolonialismoaren aurkako erreflexio marraztu bat egitea gustatuko litzaidake. Baina ideia da, oraindik ez daukat proiekturik. Egingo dudana, segur aski beste antologia bat da, Durangorako pentsatzen dut, eta bertan material berria aterako dut liburua alaitzeko.

dut. Nire esperientziatik abiatzen naiz beti. Nik uste hori gauza ona dela. Niri horrelako autoreak gustatzen zaizkit, bere esperientziatik abiatzen direnak eta bere gauzetaz hitz egiten dutenak. Esate baterako nik nire katuari buruz hitz egiteak "txorrada" bat ematen du, baina gero gauza interesanteak ateratzen dira, zuk bizi dituzun egoerak direnez, zerbait autentikoa ateratzen da.

Pertsonaz eta pertsonaiaz, zu Patxi Huarte zara, baina Zaldi Eroa izenarekin sinatzen duzu. Noiz hartu zuen Patxi Huartek Zaldi Eroa izena?

Marrazten hasi nintzenean. Zaldi Eroaren aldeko pintadak egiten nituen, Crazy Horseren aldekoak.

Hasieran gazteleraz izaten ziren: *Caballo Loco vive*. Gero euskaldundu nintzenean, kontzientzia euskalduna hartu nuenean esan nahi dut, Zaldi Eroa izena hartu nuen.

Izena buruzagi indioari hartu zenion. Iruñean euskalduna siouxak bezala sentitzen da?

Siouxak bezala ekologiararen ikuspuntutik sentitzen naiz. Ni bizikletaz ibiltzen naiz eta mundua bizikletatik edo autotik ezagutzea oso diferentea da. Esate baterako, egunero A-8an izaten diren arazoez entzuten dudanean siouxak bezala bizi ditut. Baina kulturalki palestinarrek bezala bizi dut Nafarroa. Batek esan zuen Iruñea Jerusalem bezala geratuko zela. Jerusalem bizi diren palestinarren antzera sentitzen gara: ematen du gure hiriko administrazioa ez dela sekula euskalduna izango baina bueno, bertan iraungo dugu gure kultura hemen errotua dagoenez.

Egunkarietan ateratzen diren komikigileen artean zein dituzu gustukoak?

Nik bat daukat guztien gainetik: Steve Bell ingelesa, *The Guardian* egunkarikoak. Oso ona da. Egunero egiten ditu zintak, kristoren marrazkilaria da, oso surrealista... Nik ez dut ulertzen, ez dakit ingeleraz, baina imajinatzen dut nondik nora doan eta oso ona iruditzen zait. Eta bueno, *Berrian* gaudenok denak gara onak. Oroz ere asko gustatzen zait.

Bukatzeko aipu pareta. Lehena Xabier Olarrarena, berak itzuli eta zuk ilustratutako Raymond Queneauren *Estilo Ariketak* liburuaren harira: "Esan beharra daukat oso ongi aurkitu duela liburuak tarteka duen tonu surrealista eta beste batzuetan duen kutsu *naif* hori esku tre-



Non da Euskal Talibana?

"Pertsonaiak ez erretzeko alboratzen ditut eta esateko gehiegi ez dutenean. Esate baterako Euskaltzaindiak kristoren *mobida* izango balu eta bi euskaltzain kanporatuko balitu Euskal Talibana egunero agertuko litzateke".

bez emateko bidea". Zure komikiek ere badute bai, surrealismotik bai *naif*etik ezta?

Surrealismoa nire ustez oso lotua dago umorearekin. Umorea inork oso ongi ulertzen ez duen gauza da. Nik ere ez dut ulertzen. Inork ez du ulertzen. Zergatik txiste on batek grazia egiten duen eta zergatik den ona. Zergatik esaera hori den hain grazioso. Sorpresa... zertan datza sorpresa... Surrealismoa niretzat oso kuriozoso da eta nik uste dut berebizikoa dela.

Eta *naif*izatea niretzat ona da: gauzak modu inozo batean begiratzeak laguntzen du benetako errealitatea ezagutzen. Literaturan, pinturan... begirada garden eta inozo batekin begiratzen duzunean gauza politikak ateratzen dira. Ez dira artelan osoak, ni ez naiz artista iraultzailea sentitzen, baina ateratzen dena ez dago gaizki. Badu zer edo zer.

Bigarren aipua Goñi tabernako zure kidearena da, Juan Kruz Lakastarena. "Euskalduntasunaren modernizatzaile" bezala definitu izan zaitu. Modernitatearen bandera hartu eta ergatiboaren abolizioa proposatzen jarraituko duzu?

Ez, ez... Kontua da ni euskaldun berria naitzela eta ergatiboarekin zailtasunak ditudala oraindik. Baina bueno, baita baldintzazko adituzekin eta gauza guztiekin. Baina euskara kontuetan ez dut inongo ildo gramatikalik edo linguistikorik... jolastu egiten dut besterik gabe.

Beraz ergatiboaren abolizionistek beste lider bat bilatu beharko dute?

Badira horrelakoak? Baten batek aipatu zidan euskara errazteko-eta batzuk ari zirela... Ez, nik ez nuke ergatiboa kenduko. ▢